

BALORE PROPOSAMENA

Gaur egun, ehungintzaren industriak egundoko eragina dau ekonomiaren eta planetaren osasunaren arloan. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak datu kezagarri batzuk argitaratu dauz, hala nola:

- Jantzien sektoreak 93.000 milioi metro kubiko ur erabiltzen dauz urtero, 5 milioi pertsonak bizirik irauteko beste.
- Arropa eta oinetakoen ekoizpenak berotegi-efektuko gasen % 8 ekoizten dau.

Ezkontzak, graduazioak eta bestelako jaialdietarako arroparen kasuan arazoa areagotzen da soilik behin erabiltzeko eta egunerokotasunean erabil ezin daitezkezan jantziak eta soinekoak erosten dirua eta baliabideak xahutzen diralako.

Afera honi aurre egiteko eta UNESCO-ren Garapen Iraunkorrerako Helburua dan “Ekoizpen eta kontsumo arduratsua” xedea betetzeko proiektu bat osatu dogu. Gure proposamena Bilbon kokatutako denda fisiko bat sortzea da non ekitaldietarako arropa daben eta saldu nahi daben pertsonen jantziak erosi eta guk dendan mota honetako arropa alokatu nahi daben pertsonen alokatzen deusegun. Jaialdietarako arropari erabilera berri bat eman eta behin gastatutako diruaren zati bat berreskuratu nahi daben pertsonen hitzordua eskatu leikie guk dendan generoari balorazio bat egiteko eta erosketa prezio bat eskaintzeko. Salerosketa onartu ezker, dendan erakutsi eta gure sare sozialetan promozionatuko geunke jantzi hau interesa duen bati alokatu ahal izateko. Gainera, alokatu nahi daben bezeroek dendan arropa probatu ahal izango dabe haien gustokoa dan jakiteko.

Arroparen balorazioa egiterakoan, irizpide hauek jarraituko doguz bezeroari eskaintza egiteko:

- Jatorrizko prezioa (Marka, materiala, kalitatea...)
- Zahartasuna: Jatorrizko prezioaren %50-a eskaini urte bat edo gutxiago duten jantzientzat, %30-a urte batetik bostera duen arroparentzat eta %20-a bost urte baino gehiago dabezanentzat. Datu hau Interneten ikerketa bat egin ondoren ondorioztatu leiteke.

Alokatu nahi daben bezeroek egun batetik bi asterako epean alokatu ahalko dabe jantzia guztientzako eskuragarriak diran prezioen truke. Honetaz gain, bezeroak segurtasun gordailu bat ordaindu beharko leuke generoaren erabilera ona eta babesa bermatzeko. Alokaturakoa egoera onean eta garbituta itzuli ondoren, gordailu hau berriro itzuliko litzakio bezeroari. Arropa zikin, apurtuta edo egoera txarrean balego, jantziaren prezio osoa ordaindu beharko leuke.

Jada existitzen diran arroparen alokairu negozioetatik nabarmentzen gara. Bilboko “LaMasMona” dendak jaialdietarako arropa alokatzen dau baina lehen eskukoa da, beraz, ez deuse jada ekoiztutako arropari erabilera berri bat ematen. Honetaz gain, Bilbon dagoen “Jas” dendak luxuzko arropa alokatzen dau baina gu honetan desberdinduko gara gure prezioak poltsiko guztientzat eskuragarriak izango diralako. Azkenik, gure proiektuak betetzen dauan xede garrantzitsu bat planetaren osasunaren babesa da. Azken finean, alokairuen bidez erabilera ugariak emango deuseguz jada ekoiztutako arropari eta honen bidez planetaren baliabideak aurreztu eta kontsumo arduratsua goa eta murriztuagoa sustatuko dogu.